

SORMEN AISIALDI TAILERREN IZEN-EMATE ARAUTEGIA KULTURA ZERBITZUA

1. Helburua.

Udaleko Kultura Zerbitzuak antolatutako sormen aisialdiko tailerretako izen-emateak arautzea, baita horiei lotutako kudeaketak ere.

2. Publizitatea.

2.1. Inskripzioen hasiera data baino lehen emango zaie Uharteko bizilagunei jarduerari buruzko informazioa. Gutxienez, datu hauek jasoko dira:

- Jardueren zerrenda, honako hauek adierazita: egunak, ordutegia, lekua.
- Jardueren hasiera eta amaiera data.
- Jardueren prezioa eta errenta-aitorpena aurkezteko epea.
- Epeak eta izena emateko sistema.
- Ordaintzeko epeak.

2.2. Uharteko Kultura Zerbitzuak jardueren berri emango du honako bitarteko hauen bidez:

- Uharteko etxeetan banatutako eskuorriak.
- Udal instalazioetan utzitako eskuorriak: Udala, Kultur Etxea, Ugazte, Ikastetxe Publikoak eta Ugarrandia kiroldegia.
- Uharteko Udalaren webgunean eta "conoce-uharte-ezagutu.info" webgunean.

3. Plazen eskeintza.

3.1. Jarduera guztiek plaza kopuru mugatua dute, eta Uharteko Udalaren Kultura Zerbitzuak ezarriko du jardueraren ezaugarrien eta jarduerarako erabiliko den espazioaren arabera.

3.2. Plazen esleipena (lehentasuna) "udal zerbitzuetan izena emateko prozesua arautzen duen ordenantza" arautuko du.

3.3. Jarduera bertan behera geratuko da, baldin eta izena emandako pertsonen kopurua ez bada iristen Uharteko Kultura Zerbitzuak jarduera horretarako

ezarritako kopurura. Jarduera bat aurrera ateratzeko, gutxienez eskainitako plazen % 75 bete beharko dira.

3.4. Plazak esleitzeko irizpideak.

3.4.1. Lehentasuna plazak esleitzeko orduan.

- Uharteko udalerrian erroldaturiko pertsonen lehentasuna izango dute erroldatu gabeen aurrean.
- Uhartan ikasten duten eta bertan erroldaturik ez dauden pertsonen lehentasuna izango dute erroldaturik ez dauden gainerakoen aurrean plazak esleitzeko orduan.
- Erroldatu gabeko pertsonen lehentasuna izan dezakete plaza bat esleitzeko orduan erroldaturikoen aurrean, matrikulazioa epe barruan egin badute eta azken horiek ez.

3.4.2. Matrikulazio kopuruak dagoen plaza kopurua gainditzen badu, zozketa egingo da. Zozketa horren ondoren plazak esleitu dira eta itxaron zerrenda egingo da, egon daitezkeen bajak betetzeko.

3.4.3. Urte batetik bestera plaza erreserbatzeko aukera ematen duten "jarraipeneko" haur jardueren artean, urte batean onartuak izan diren erroldatu gabeko haurrek plaza erreserbatzeko izango dute hurrengo urterako, erroldaturik dauden pertsonen bezala. Beharrezkoa izango da dagokion epean matrikula egitea.

3.4.4. Eskariak eskaintza gainditzen badu, Udalaren erabakia izango da jarduera bikoiztea eta talde berria eskaintzea, bere irizpideen arabera.

3.4.5. Plazen esleipena amaitutakoan, zerbitzuaren emaitzak argitaratuko dira, zerrenda baten bidez. Zerrenda horretan agertuko dira erabiltzailea eta plazen esleipenaren emaitza (esleitutako plaza eta itxaron-zerrendaren ordena).

4. Inskripzioak.

Jardueretan izena emateko, matrikulazio inprimakia behar bezala beteta Uharteko Udaleko kultura zerbitzura helarazi beharko da, posta elektronikoz cultura@huarte.es helbidera bidalita edo kultura zerbitzuan (Kultur Etxeko 2. solairuan, 8:30etatik 14:00etara edo atezaintzan 16:00etatik 21:00etara). Ezarritako epeetan.

5. Itxaron zerrenen kudeaketa.

5.1. Plaza libreak itxaron-zerrendan dauden interesdunei eskainiko zaizkie, zerrendan jasotako hurrenkerari jarraituz.

5.2. Itxarote-zerrendan dauden interesdunekin harremanetan jarriko gara, telefonoz edo posta elektronikoz. Ezin bada pertsonarekin harremanetan jarri, itxaron-zerrendan baja emango zaio honako kasu hauetan:

5.2.1. Ahots postontzian edo posta elektronikoa mezua utzi eta 24 orduz erantzunik ez jasotzean.

5.2.2. 24 orduko epean ezin bada pertsonarekin harremanetan jarri hiru ordu desberdinetan saiatu ondoren, baldin eta interesdunak ez badu ahots-postontzirik edo posta elektronikorik.

5.3. Jardueretan parte hartzeko aurrez izena emateko epetik kanpo egiten diren eskabide berriak itxarote-zerrendan sartuko dira, eskaera ordena zorrotzean, interesduna erroldatuta dagoen herria edozein dela ere.

5.4. Jarduera bateko itxarote-zerrendan dauden pertsonak plaza batera sartzeari uko egiten badiote, itxarote-zerrendatik kanporatuko dira.

6. Ordainketa mota

6.1 Urriko bigarren hamabostaldian banku-igorpena egingo zaie onetsitako ikasleei. Igorpen hori tailerraren kopuru osoarengatik edo tailerraren kopuruaren %50arengatik izan daiteke, tailerrak 80€ edo gehiago balio baditu, ikasleak hautatu duen aukeraren arabera.

6.2 Abenduko bigarren hamabostaldian banku-igorpena egingo zaie dagozkien ikasleei, tailerraren kopuru osoaren gainerako %50arengatik.

6.3 Banku-igorpena itzultzen bada, berriro igorriko da, %5eko gehikuntzarekin.

6.4 Egin beharreko ordainketak ez badira jakinarazitako epean egiten, bide betearazlea erabiliz kobratuko ditu Udalak, legez bidezkoak diren bestelako neurrien kalterik gabe.

7. Jardueraren hizkuntza

7.1 Udal batzordeak jarduerak gaztelaniaz eta euskaraz eskainiko ditu, Uharteko eremuan euskararen sustapenerako eta normalizaziorako ordenantza aplikatuz.

7.2 Bi hizkuntzetako edozeinetan tailer bat gauzatu ahal izateko, beharrezkoa izango da gutxieneko ikasle kopurura heltzea. Bi hizkuntzetako bakoitzean izandako matrikulazioa gutxieneko horretara heltzen ez bada, Udalak eta dagokion Udal batzordeak, tailerrak tailer bakarrean bateratzeko aukera izango dute.

7.3 Horrelakorik gertatuz gero, jarduera ikasle gehien matrikulatu diren hizkuntzan egingo da, eta begiraleak aukera izango du ikasle gutxieneko tailerrean izena emandako pertsonen arreta beste hizkuntzan emateko, jardueraren ezaugarriek horretarako aukera ematen badute (haurrentzako dantza ikastaroetan, adibidez).

7.4 Bi modalitateetako ikasle kopurua berdina bada eta ezarritako gutxienekotik hurbil badago, Udalak eta dagokion Udal batzordeak, tailerra bitan bikoizteko aukera izango dute.

7.5 Tailerren bat hizkuntza jakin batean gauzatzen bada, eta beste hizkuntzaren batean matrikulaturiko pertsonaren bat baldin badago, tailerrean parte hartzeko aukera emango zaio, jardueraren ezaugarriek horretarako aukera ematen badute. Horrelakoetan, jardueraren komunikaziorako hizkuntza 7.3. puntuan adierazitakoa izango da.

8. Bajak eta matrikulen itzulketak.

8.1 Edozein unetan edozein pertsonak baja eman ahal izango du, dagokion instantzia betez eta sinatuz.

8.2 Matrikulazio epea bukatzean eta idatziz baja eskatzen ez bada, ikasturte osoko erreziiboak kobratzeko prozesuari ekingo zaio eta ez da diruaren itzulketarik egingo eta ikasleak matrikula osoa ordaindu beharko du.

8.3 Matrikula soilik salbuespenezko kasuetan itzuliko da: istripua, medikuak justifikatutako gaixotasunen bat dagoenean, familian gertaera larriren bat dagoenean, bizitoki aldaketa dagoenean eta ezinbestekoa den kasuetan itzuliko da.

9. Izena emateko epe berria.

Urtarrileko bigarren hamabostaldian plaza libreak dituzten tailerretarako matrikulaziorako epea irekiko da, tailerraren ezaugarriek horretarako aukera ematen dutenean.

10. Organo eskudunak.

Udala eta Kultura Batzordea dira organo eskudunak aisia sortzaileko tailerrekin erlazionaturiko edozein alaketetarako.